



### ● EKOIZPENA:

- Kalitate handiko kafea eta janariak prestatzea, munduko kultur desberdinen ezaugarriak islatuz.
- Aldi bakoitzean gai kultural desberdin bati buruzko esperientzia sortzea, bezeroak murgiltze kulturalera eramateko.
- Jasangarritasunaren eta ingurumenaren zaintzaren aldeko konpromisoa partikan jartzea , produkto eta hornikuntza iraunkorrak erabiliz.

### ● ARAZOAK KONPONTZEA:

- Eguneroko operazioetan era bezeroen eskaeretan agertzen diren arazoak modu eraginkorrean konpontzea.
- Kultur aldaketen eta ekitaldi berezien antolakuntza kudeatzea.
- Aldaketa tematikoak eta ekitaldiak antolatzerakoan sortzen diren logistika eta koordinazio arazoak konpontzea.

### ● PLATAFORMA EDO SAREKO JARDUERAK:

- Webgunearen eta sare sozialen edukiaren kudeaketa eta eguneraketa TERRATASTE markaren presentzia digitala hobetuz.
- Bezeroaren leialtasun programa eta komunikazio digitalen kudeaketa, bezeroaren inplikazioa eta atxikipena sustatzeko.
- Online marketin kanpainak eta harreman publikoak, TERRATASTE-ren ikusgarritasuna handitzeko eta bezero berriak erakartzeko.

### ● GURE TAILER IRAUNKORRAK:

Praktika jasagarriari buruzko tailerrak antolatzen ditugu, hala nola konpostajea, birziklatze sortzailea edo produktu berrerabilgarrien fabrikazioa. Bezeroak ingurumen-kontzientzia sustatzen duten ekintzetan inplikatzeko ditugu.

### ● GURE KAFE DASTAKETA ETNIKOAK:

Munduko eskualde espezifiketatik datozen barietateak nabarmentzen dituzten kafe dastaketak eskaintzen ditugu. Kafe bakoitzaren kulturari eta jatorriari buruzko istorioak partekatzen ditugu zentzumenezko bidaia-esperientzia bat eskaintzeko.

### ● BIDAIEI BURUZKO HITZALDIAK:



Esperientzia handiko bidaiariak gonbidatzen ditugu beren istorioak eta aholkuak modu informalean partekatzen. Horrek inspiratu egiten ditu gure bezeroak, eta kultura-trukerako giroa sortzen du gure kafetegian.

- **HERRIALDEETAKO MENU TEMATIKOAK:**

Aldian-aldian, herrialde jakin bateko gastronomiari eskaintzen diogu gure menua. Osagai lokalak eta iraunkorrak erabiltzen ditugu gure bezeroak urrutira eramaten dituzten benetako platerak sortzeko.

- **GURE BIDAIA JASANGARRIEN IRAKURKETA KLUBA:**

Bidaia jasagarriari eta ekoturismoari buruzko liburuetan oinarritutako irakurketa kluba antolatzen dugu. Parte-hartzaileen arteko eztabaida eta ideia-trukea sustatzen ditugu.

- **MUNDUKO MUSIKA BIZIRIK:**

Munduko hainbat tokitako musika aurkezten duten zuzeneko emanaldiak programatzen ditugu. Horrek giro animatua eta multikulturala sortzen du gure kafetegian.

- **ESPAZIO ALDAKORRAREN DISEINUA:**

Gure kafetegiko dekorazioa gai edo eskualde desberdin baten arabera egokitzen dugu aldian-aldian. Horrek giro freskoa mantentzen du eta gure bezeroen jakin-mina pizten du.

- **SORMEN BIRZIKLAPENERAKO TXOKOAK:**

Gure kafetegian txokoak sortzen ditugu, non bezeroek birziklapen sortzaileko proiektuetan parte har dezaketen. Adibidez, kafe kikara berrerabilgarriak apaintzea edo material birziklatuekin artea sortzen parte hartzea.



- **BIDAIA FILMEN GAU TEMATIKOAK:**

Leku harrigarriak nabarmentzen dituzten eta planetaren edertasuna kontserbatzearen garrantzian arreta jartzen duten filmen gauak antolatzen ditugu.

- **GURE AIRE ZABALEKO JARDUERAK:**

Kanpoko espazioa badugu, goizeko yoga, picnics jasagarriak edo tokiko produktu ekologikoen azokak antolatzen ditugu.